

INTERNETEN INFORMAZIOA NON ETA NOLA AURKITU

4.- MODULUA: INFORMAZIO KUDEAKETARAKO AHOLKUAK

“Geroak zer ekarriko duen asmatzeko erarik onena etorkizuna eraikitzea da”

Douglas Adams

A.- Sarrera:

Informazio bilaketak Interneten egiten ditugu gehien bat. Bibliotekak baino hiru bider gehiago erabiltzen dute ikasleek Internet informazio akademikoa bilatzeko. Oro har, gure lanerako eta bizitza pertsonalerako informazioa behar dugunean tresna berdina erabiltzen dugu: Google. Zer adierazten du honek? Helburu desberdina duen informazioa bilatzeko orduan, ez ditugula estrategia desberdinak erabiltzen. Tresna eta estrategia bera enplegatzen dugu denerako.

B.- Informazioa kudeatzeko aholku bilduma:

1.- Start small, think big.

Inor ez da jaio jakinda. Informazioa modu eraginkor eta errazean bilatu, aurkitu, topatu, antzemateko, ... denbora behar da. Beraz, utzi alde batera prisak. Lasai hartu eta hasi apur-apurka, baina helburu zehatz batekin: zure lanean informazioa bilatzen denbora gutxiago pasatu, azkarrago bilatu, Hasi pixkanaka baina helburu batekin. Adibidez,

- √ Internet bilatu behar duzuna denbora gutxitan egitea.
- √ Bilatzea informazio egokia lehenengoan.
- √

Helburu zehatzak finkatu behar ditugu eta horien arabera gure interes barruan daudenak landu eta besteak baztertu.

2.- Bilaketa ohitura onak landu:

Teknologia berriak, eta batez ere Internetek, oso erakargarriak dira. Hainbestearainoko gertatzen da, dependentzia ere sortzen dutela. 2008ko urriaren 9an, TVEko [Documentos](#)

[TVn ng@nx@2](http://TVn.ng@nx@2) dokumentala eman zuten. Teknologia berriek, batez ere gazteengan duten eragin kaltegarriak zeintzuk diren kaleratu zituzten. Euren artean, Interneten inguruko dependentzia azaldu zen. Internetera atxikituta egoten den pertsona **teknonykia** da.



Ohitura txarrak dependentzia sor dezakete. Beraz, erabili sarea baina modu egokian eta batez ere, behar duzuna lortzeko beharrezkoa da: bilaketa ohitura onak lantzea.

a.- **Ez erabili informazio-iturri bakarra.** Interneteko bilatzaileak jaio orduko, informazioa hainbat iturrietan bilatzen genuen. Liburu ugari kontsultatzen genituen, aldizkarietako artikulua irakurtzen genituen, iritzia eskatzen genion gaia menperatzen zutenei, hainbat informazio-iturri miatzen genituen datu bilketa egiteko. Gaur egun, iturri bakarrak erabiltzeko ohitura da nagusi. Kontuan izan, emaitzak ez dutela agerrarazten informazio guztia. Eduki egokiak, aberasgarriak eta akatsak ekiditeko erabili informazio-iturri bat baino gehiago.

b.- Utzi alde batera erraztasuna eta Googlek ematen dituen **emaitzak erkatu beste bilatzaile batzuen emaitza zerrendekin edo beste toki batzuen informazioaz.**

c.- Google ez da bilatzaile bakarra, **ez zaitetz “Fideismoan” (yo me ffo) jauzi eta jarrera kritikoa izan informazio-iturrien aurrean.** Hau da, “ez fidatu Googlek kaleratzen duen guztiaz.” Gogoratu, badaudela orain arte erabili izan ditugun beste informazio-iturriak ere.



Askok edozein informazio Internet aurki daitekeela itsu-itsu uste du. Baina, **beste euskarrietan dagoen informazioa ere kontuan hartu behar dugu.**

d.- **Bilaketak zehaztu.** Bilaketa kutxan ez jarri buruan duzun lehen hitza. Emaidza onak izateko, **pentsatu zeintzuk diren hitz-gako egokiak.** Adibidez, “anorexia”, “anorexia nerviosa”, “síntomas anorexia nerviosa”. Zenbat eta xehetasun handiagoa, emaitza egokiagoak izango dituzu.

e.- **Erabili bilaketak egiteko ikurrak:** “”, (), OR, AND, *, site, eta abar eta **ez egin azaleko bilaketak.** Bilaketa prozesua garrantzitsua da, emaitza onak hartzeko **hobea da bilaketa zehaztuak egitea.**

f.- **Saihestu pazientzia gutxiko nabigazioa.** Eman 10 segundu baino gehiago aurkitzen duzun horri. Emaidza zerrendetako bigarren orrialdera pasatu. Web gune bateko atal guztiak kuxkuxeatu.

g.- Eraitza zerrendak ematen dituzten helbideetara banan-banan joan beharrean, **begiratu bilatzaileak katxean gordeta duen informazioa**. Hau da, datu-basean gordeta dagoen informazioa bistaratuz, zuzenean ikusiko duzu zein den orrialdearen edukia. Horrela, baieztatuko duzu egokia den eta oso denbora gutxi erabiliko duzu helbide zuzenera joan gabe. Zerk gaitzen du jokabide honek? Zerrendako helbidera sartzeko denbora gehiago erabiltzen dugu, konexioaren abiadura edo webgunearen atzipena baldintzatzen baitu bertara sarrera. Katxean begiratzen badugu, datu-basean gordeta dagoen kopiako informazioa ikusiko dugu segundo bitan.

3.- Nabigatzaile egokia aukeratu:

Hemen aurkituko dituzuen gomendioen artean, hau da garrantzitsuenetarikoa. **Nabigatzaile egokia aukera ezazue**. Asko daude eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina denen artean, nire ustez, **egokiena: Firefox da**.





1. Irudia: Firefox nabigatzailea deskargatzeko gunea

- √ **Dohainik** deskargatu daiteke.
- √ **Seguruenetarikoa** da.
- √ **Nabigazio azkarra eta iradokitua** gaitzen du.
- √ **Ez du Exploreren lana oztopatzen.** Biak erabili daitezke nahi izanez gero. **Ordenagailuan nabigatzaile bat baino gehiago instalatu daiteke.** Horrela, Explorer, Firefox eta Chrome izan ditzakegu instalatuta eta **Interneteko saioa hasi behar dugunean, nahi duguna aukeratuz,** horrekin hasiko dugu sesioa.
- √ Mila trikimailu ditu, eta maila guztietako erabiltzaileentzako: hasiberriak, erdi-mailakoak eta aurreratuentzako. Hona hemen informazioa: <http://www.mozilla-europe.org/eu/firefox/tips/>
- √ **Gehigarri egokiak, eguneratuak eta oso baliagarriak** ditu. Gehigarriak edo pluginak nabigatzailearen lana egokitu, erraztu, lagundu eta doituko duen aplikazio txikiak dira. Firefoxek hainbat gehigarri ditu, guztiak eskuragarri daude eta helbide honetatik jaitsi daitezke: <https://addons.mozilla.org/eu/firefox/>


4.- Nabigatzailea jantzi eta egokitu informazioa kudeatzeko hedapenekin:

Behin nabigatzailea aukeratuta, Firefox izanez gero, hona hemen lagungarriak izango zaizkizuen hedapenak edo programatxo txikiak. Ez izan beldurrik eta trasteatu. Ez duzue ezer apurtuko eta gogoratu, jartzen diren programatxo guztiak gero lasai asko desinstalatu daitezkeela.

a.- **Bilaketa errobotak kudeatu:** Firefoxek baliabide garrantzitsua du bilaketak egiteko, bilaketa errobotak. Tresna honi esker, bilaketa bat egin nahi den bakoitzean ez da zertan zabaldu behar web orri zehatz bat, Firefoxetik zuzenean egin baitaiteke. Nabigatzailearen eskumako bilaketa leihoan ageri den gezian klikatuz gero, ikus daiteke non egin daitezkeen bilaketak, ikusi ondoko irudia:




2. Irudia: Bilaketa-motorrak kudeatzeko atazaren sarrera



3. Irudia: Firefox nabigatzailearen bilaketa-kutxatila egokitua


Irudian ikusi dezakezue nire bilaketa kutxatilan dauden bilaketa gunean, eskuineko zutabearen. Azken lerroan **“Kudeatu bilaketa-motorrak”** azaltzen da. Bertan sakatuz gero, dituzuen bilaketa motorren zerrenda azalduko zaizue eta baita beste batzuk gehitzeko aukera.



4. Irudia: Bilaketa-motorrak kudeatzeko ataza

“**Eskuratu bilaketa-motor gehiago**” aukeratzen baduzue, Firefox nabigatzaileak dituen bilaketa motorren gunera joango da eta han aukeratu izango duzue, nahi duzuen.

b.- **Google Images**: Irudiak dira sarri askotan behar dugun materialik usuena. Hori dela eta ezagutuko duzue Googlek irudiak bilatzeko duen aukera: (“irudiak” aukera klikatuz bilaketa-kutxatilan sartutako hitz-gakoari dagokion irudia bilatuko digu.)



5. Irudia: Googlen bilaketa aukerak

Eragiketa hori egiteko, Googlen aukeratu egin behar dugu ataza. Hala ere, badugu Googlen irudiak zuzenean bilatzeko aukera. Horretarako Google Images gehigarria jaitsi dezakegu gure nabigatzailearen bilaketa-motor bezala jartzeko helbide honetatik: <https://addons.mozilla.org/eu/firefox/addon/12061>



The screenshot shows the Mozilla Firefox Add-ons page for the 'Google Images 20090611' add-on by Dr_Monkey99. The page features a search bar at the top with the text 'bilatu gehigarriak' and a dropdown menu set to 'gehirri guztiak'. The main content area displays the add-on's details, including a 'Gehitu Firefox(e)ra' button, version information (20090611), and user ratings (12 reviews, 5 stars). A search bar is also visible within the add-on's preview window.


6. Irudia: Google Images deskargatzeko gunea

Edozein gehigarri instalatzeko “Gehitu Firefoxera” hautatu eta gero argibideak jarraitzea besterik ez dago. Google Images instalatu ondoren gure bilaketa-kutxatilan kokatuko da irudi honekin:



7. Irudia: Google Images deskargatuta eta bilaketa-kutxatilan kokatua

Behin instalatuta kutxatilan sartzen dugu hitz-gakoa eta emaitzak irudiak izango dira soilik. Adibidez, “udaberria” bilatzen badugu, hona hemen emaitzak:



8. Irudia: Google Images deskargatuta eta bilaketa-kutxatilan kokatua

Aldiz, esaten badiogu “imágenes colorear” bilatzeko hori berori emango digu:



9. Irudia: “imágenes colorear” bilatzen



10. Irudia: “imagenes colorear” bilaketaren emaitza

b.- **OpenSearch Fox:** Agian, Firefoxek eskuragarri dituen motorrak ez dira zuek behar dituzuenak. Ez kezkatu, gure beharrei lotuago diren bilaketak egiteko tresnak ere eskura daitezke. Esaterako, bilaketak egiteko aukera ematen duen edozein kontsultagune. Horretarako OpenSearchFox izeneko plugina instalatu behar da:

<http://opensearchfox.uptodown.com/>

Imajinatu dezagun, [Euskal Girotzen Barnetegien Jolas Bilduma](#) kontsultatu behar dugula sarritan, umeekin jolasteko jokoak bilatzeko. Helbidea gure gogokoetan gorde beharrean, jarri dezagun gure bilaketa-motoreen artean.

1. OpenSearchFox hedapena deskargatu eta instalatzeko argibideak jarraitu: <http://opensearchfox.uptodown.com/>
2. Behin deskargatuta izanik frogatuko dugu. Adibidez, joan Euskal Girotze Barnetegien Jolas Bildumara: <http://egbjolasak.ulibarri.info/>




11. Irudia: Euskal Girozte Barnetegien Jolas Bildumaren ataria

3. Jarri kurtsorea “Bilaketa bizkorra” eremuaren gainean eta sakatu zuen saguaren eskuineko botoia:




12. Irudia: Jolas Bildumaren ataria bilaketa-motorrean gehitzeko lehen pausua

4. Irudian ikusten duzue **Add OpenSearch plugin** aukera? Aukeratu aukera hori eta honako irudia azalduko zaizue:




13. Irudia: Jolas Bildumaren ataria bilaketa-motorrean gehitzeko bigarren pausua

Jarraitu bertako pausuak. Bilaketa kutxatilan nahi duzuen izena jarri (berak web guneko izena hartuko du, baina aldatu dezakezue.) Bete ondoren, azken koadroa azalduko da:



14. Irudia: Jolas Bildumaren ataria bilaketa-motorrean gehitzeko hirugarren pausua

(PayPal ikurra azaltzen da, baina lasai, ez da ezer ordaindu behar, donazioak egiteko gaitu dute.) Esan amaitu eta jadanik, zuen nabigatzailearen bilaketa kutxatilan instalatua izango duzue bilaketa motorra. Hona hemen, pausu horiek jarraitu ondoren, nire nabigatzailean zelan kokatu den, azken tokian dago.



15. Irudia: Jolas Bildumaren ataria bilaketa-motorrean gehituta, azken postuan

Beraz, orain jolas bat bilatu nahi dut eta nire nabigatzailearen eskuineko bilaketa kutxatilara noa. Aukeratzen dut, motorra, kasu honetan Jolas Bildumakoa eta bilatu nahi dudana testua sartzen dut. Adibidez, **sokasalto**




16. Irudia: Jolas Bilduman bilaketa bat egiten bilaketa-kutxatilaren bidez

Hona hemen emaitzak, zuzenean web gune horretara eramango gaitu, eta eskatutako jolasera:



17. Irudia: Jolas Bilduman egindako bilaketaren emaitza

c.- **Fast Dial:** Firefoxen beste aplikazio txiki eta erabilgarri bat:
<https://addons.mozilla.org/es-ES/firefox/addon/5721>




18. Irudia: Fast Dial jaisteko tokiak

Hedapen honen bidez, sarritan edo egunera web gune beretsuak kontsultatu behar badituzue, esaterako: Haurreskolen ataria, Eusko Jaurlaritzaren orria eta enziklopedia medikoa, jarri zure lehen pantaila toki honetarako sarbide zuzena Fast Dialekin.

1. Deskargatu Fast Dial: <https://addons.mozilla.org/es-ES/firefox/addon/5721>
2. Berrabiarazi Firefox nabigatzailea.
3. Berriz bistaratzen denean, zure nabigatzailean honako ikurra ikusiko duzu:




4. Fast Dial prest duzu. Sakatu, ikurra eta honako pantaila azalduko zaizue:




19. Irudia: Fast Dial gure ordenagailuan kokatu ondoren

5. Sakatu zuen saguaren eskuineko botoia eta hau agertuko da:




20. Irudia: Fast Dial pertsonalizatzeko lehen pausua

6. Aukeratu “ADD” eta gero Bookmark




21. Irudia: Fast Dial pertsonalizatzeko bigarren pausua

7. Formulario txiki hau ikusiko duzue:



22. Irudia: Fast Dial pertsonalizatzeko datuen sarrerarako formularioa

8. Sartu, Haurreskolen web gunearen helbidea, jarri izenburua eta nahi izanez gero deskripzioa. Eman adoz eta listo. Errepikatu prozesua nahi dituzun web guneari helbideratu arte. Begiratu, emaitzak egindako frogetan (Haurreskolak, Eusko Jaurlaritza, Medpedia eta Jolasen Bilduma)



23. Irudia: Fast Dial gure ordenagailuan kokatu eta pertsonalizatu ondoren

Hemendik aurrera, sakatu nabigatzailean lau koloretako kuadrotxo txikien ikurra, eta hor izango dituzue, zuen pantailan aurrean, zuek aukeratutako guneak begi-bistan. Edozein klikatuz gero, bertara joango zarete zuzenean.

d.- **Xippee:** Googlen bilaketak zehazteko Firefoxen tramankulu txiki eta erabilgarria.

<https://addons.mozilla.org/en-US/firefox/addon/5309>



Firefoxerako gehigarriak

Kategoriak hemen:

Firefox(e)rako gehigarriak

Xippee Firefox Extension 2.51
Egilea: Robert Bunn

Xippee for Firefox - Quickly focus your search by simply pointing and clicking.

Gehigarri hau Firefoxen bertsio zaharagoetarako da **ikusri pribatutasun-politika**

Version	2.51
Honekin dabil	Firefox: 1.5 - 3.0.*
Updated	2008(e)ko maiatzaren 21a
Garatzailea	Robert Bunn
Webgunea	http://www.xippee.com
Puntuazioa	★★★★★ 27 berrikuspen
Deskargak	227035

Partekatu gehigarri hau

Gehiago gehigarri honi buruz

The Xippee Extension allows you to search visually in all of your favorite search engines (Google, Yahoo, MSN, and countless others). Simply double-click on any word (or highlight any phrase) then plus and minus buttons will be displayed. You can press either button for the term to be added (or subtracted) to your current search and then it returns a new set of results based on your updated search string. This

Need help with this add-on?

- E-mail your question
- Visit the support site


Etiketak
 Etiketak gehitzeko, eman izena edo hasi saioa

Often Used with...
 SF.tv
 Saferfox Xpanded
 Domalnav
 met.a
 ScrollyFox

Erlazionatutako bildumak
 Iso
 Travis' s best add on for everyone
 aaya of collections
 eta 13 bilduma gehiago


24. Irudia: Xippee hedapena deskargatzeko gunea

1. Jaitsi Xippee eta deskargatu: <https://addons.mozilla.org/en-US/firefox/addon/5309>
2. Instalatu ondoren, frogatzen hasi zaitezke. Egin bilaketa bat, Googlen. Adibidez, **autismo** bilatuko dugu.



25. Irudia: Xippee hedapena erabiltzeko prest Googlen bilaketa emaitzetan


3. Emaitza asko daude, eta guk zehatz-mehatz tratamenduari buruz zerbait jakin nahi dugu. Beraz, irudian ikusten duzuen bosgarren emaitzan tratamenduari buruz zerbait adierazten da.
4. Zuen saguarekin, esan dugun tokian “Tratamiento” hitza aukeratu eta Xippee kutxatila txikia azalduko zaizue ondoan. Ikusi irudia:



26. Irudia: Xippee hedapenaren erabilera


5. + ikurra sakatuz gero, Googlek automatikoki berriz egingo du bilaketa eta

“autismo + tratamiento” bilatuko du. Hona hemen emaitza:



27. Irudia: Xippee hedapenaren erabili ondoko bilaketa emaitza berria

6. Aldiz, Xippee-ren kutxatilan — ikurra sakatuz gero, Googlek berriz bilatuko du autismoa baina “tratamenduari buruz informaziorik ez duena.” Hona irudia:



28. Irudia: Xippee hedapenaren erabili ondoko beste bilaketa emaitza bat

5.- Edukien sindikazioa modu egokian egin eta iragazi informazioa:

Informazio tsunamia ekiditeko. Edukien sindikazioa oso tresna garrantzitsua da. Batzaileen bidez informazioa guk nahi dugun iturrietatik jasoko dugu, ez dugu bilatu behar. Hala ere, datu kopurua itogarria ez dadin gertatu sindikazio irizpideak zehaztu ditzakegu iragazkien bidez. Horri esker, gure interesekoak diren gaitan bakarrik jarriko dugu arreta. Zelan? Aukeratu dugun iturri bakoitzean argitaratzen diren artikulua berri guztiak jaso beharrean, esaterako “psikomotrizitatea” gaia lantzen duten berriak jaso ditzakegu soilik, iragazkiak erabiliz.

Beraz, harpidetza gaitu bai, baina aukeratu behar duzuen informazioa. Beraz, ez harpidetu web gune osoetara, bakarrik etiketa batekin izendatutako berriei, post edo artikuluei.

6.- Laburbilduz:

Daniel Innerarity irakaslearen hitzekin eta gomendioekin amaituko dugu:

“Lehen, ezjakina ezer ez zekiena zen, gaur, aldiz, ezjakina nahastuta dagoen hori da. Ondorioz, ezjakintasuna eta nahasmena ere ezberdinetan kudeatu beharrekoak dira. Nahasmendutik ihes egiteko kudeaketa baino ez da behar. Filtro bat jarri behar dugu jasotzen dugun informaziotik zerbait ikasi ahal izateko. Helburu zehatzak finkatu behar ditugu eta horien arabera gure interesen barruan daudenak jaso eta besteak baztertu.

(...)

- 1.- **Atentzioa kudeatu** behar dugu. Ezin ditugu gauza bi alde berean egin.
- 2.- **Lehentasunak zehaztu** behar ditugu zerbaitera heldu ahal izateko. Gehiegi nahi duenak ez du ezer lortuko, nahasmenduan jausiko da.
- 3.- **Zure kabuz pentsatu**. Hanka sartzeak irakasten digu.
- 4.- **Ondo antolatu**, gero sinplifikaziorako bide paregabe baita.
- 5.- **Xehea izan**, mamira heltzeko gai izan behar gara.”